

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gripearen aurkako txertaketa-kanpaina hasi da Nafarroan, 60 urteko gorakoentzat, paziente kronikoentzat eta haurdunentzat batik bat

*Guztira 120.000 txerto jartzea espero da, eta osasun arloko langileentzat, irakasleentzat eta pertsona ahulen zaintzaileentzat izango da*


Astelehena, 2017.eko urriak 16

Gripearen aurkako txertaketa-kanpaina hasi du gaur Nafarroak, gaixotasun horren aurrean ahulenak diren pertsonak babesteko, hala nola 60 urtetik gorakoak, gaixotasun kronikoak

dituztenak edo haurdun dauden emakumeak. Txertoa osasun arloko langileentzat, irakasleentzat eta oinarrizko edo funtsezko zerbitzu publikoen langileentzat, gaixoen edo ahulenen zaintzaileentzat ere da. Datorren azaroaren 30era jarri ahalko da ohiko osasun-zentroan.

Osasun Departamentuak 120.000 txerto erosi du urte sasoiko gripearen aurkako 2017-2018 kanpainarako, eta horrek, 324.480 euroko gastu osoa ekarri du (2,70 euro dosiko). Helburua gaixotasun horrekin lotutako heriotza-tasa eta gaixotze-tasa eta herritarrengan duen eragina murriztea da.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan



Osasun Departamentuak gripearen aurkako txertaketa-kanpaina hasi du dagoeneko.

Osasunaren Institutuak egindako azterketaren arabera, [Foru Komunitateak iaz egindako gripearen aurkako kanpainari esker, 150 heriotza inguru eta beste horrenbeste ospitaleratze saihestu ziren.](#)

Horrez gain, diotenez, txerto horrek ekartzen duen babesari esker, arrisku handiko faktoreak dituzten pertsonen 350 kontsulta gutxiago egon ziren lehen mailako arretan.

Kanpainaren helburua da hiru biztanle-talde babestea: pertsonarik ahulenak eta gripea izaten badute konplikazioak izateko arrisku handiena dutenak, gripea arrisku handiko talde horri kutsatu ahal dioten pertsonak eta bere lanbidea dela-eta, komunitateari funtsezko zerbitzuak ematen dizkioten langileak.

Gripearen aurkako txertoaz gain, 65 urtetiko gorakoei eta aurretik hartu ez duten eta arriskua duten pazienteei txerto pneumokozikoa jarriko zaie, bizitzan behin bakarrik jartzen delako.